

Baremazioa

Onarpen-baldintzak betetzen dituzten pertsonak eta bizikidetza-unitateak honako irizpide hauen arabera puntuatuko dira:

1) I Diru-sarrerak: gehienezko puntuazioa: 30 puntu

- Honako taula hauen arabera emango dira puntuak:

"JOLASTOKIETA" SUSTAPENA	
DIRU-SARREREN TARTEA	PUNTUAK
25.000,00 € - 35.000,00 €	30
35.001,00 € - 45.000,00 €	27,5
45.001,00 € - 50.700,00 €	25

"CLINICA EL PILAR" SUSTAPENA	
DIRU-SARREREN TARTEA	PUNTUAK
25.000,00 € - 35.000,00 €	30
35.001,00 € - 45.000,00 €	27,5
45.001,00 € - 57.700,00€	25
50.701,00€ - 58.500,00 €	22

2) Antzinatasuna Donostiako Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroan izena ematean: 20 puntu, gehienez.

- Se otorgarán puntos en función de la siguiente tabla:

ESKAERA-ANTZINATASUNAREN URTEAK	PUNTUAK
Urtebete baino gutxiago	0
Urtebete eta 2 urte baino gutxiago	2
2 urte eta 3 urte baino gutxiago	4
3 urte eta 4 urte baino gutxiago	6
4 urte eta 5 urte baino gutxiago	8
5 urte eta 6 urte baino gutxiago	10
6 urte eta 7 urte baino gutxiago	12
7 urte eta 8 urte baino gutxiago	14
8 urte eta 9 urte baino gutxiago	16



9 urte eta 10 urte baino gutxiago	18
10 urte edo gehiago	20

- **Dokumentazioa:**
Ez da beharrezkoa dokumentazioa aurkeztea, Etxegintzan dauden datuak hartuko dira kontuan.
- Urte osoa zehazteko erreferentzia eskaeren bilketen itxiera izango da.

3) Bizikidetza-unitateko kideen kopurua: 5 puntu, gehienez.

- Honako taula honen arabera emango dira puntuak:

BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEAK	PUNTUAK
1	1
2	2
3	3
4	4
5 edo gehiago	5

4) Donostiarekiko lotura: 10 puntu, gehienez.

- Bizikidetza-unitateko kideren bat hirian etengabe bizi bada, edo bertan lan egiten badu, honako taula honen arabera:

LOTURA MOTA	PUNTUAK
Azken bost urteetan hiru urtez bizilekua izateagatik.	10
Azken hiru urteetan hirian lan egiteagatik eta azken hamabost urteetako bost urtetan hirian bizitzeagatik.	7,50
Donostian azken hamar urteetan lan egiteagatik.	5

- **Dokumentazioa:**
 - Bizilekuaren arabera loturari dagokionez, ez da beharrezkoa dokumentazioa aurkeztea, udal-erroldako datuak hartuko dira kontuan.
 - Lan-loturari dagokionez: lan-bizitza eta zerbitzua ematen den enpresaren ziurtagiria.

5) Egoera bereziak: 10 puntu, gehienez.

- Atal honetan puntuazioa lortzeko, kontuan hartuko dira bizikidetza-unitatean desgaitasun intelektuala eta garapeneko edo gaixotasun mentala duen pertsona bat, terrorismoaren biktimatik, genero-indarkeriaren biktimatik edo mendekotzat jotako pertsona bat agertzen den kasuak (1etik 3ra bitarteko graduak).



- Honako taula honen arabera emango dira puntuak (ez modu metagarrian):

EGOERA BEREZIAK	PUNTUAK
Adimen- eta garapen-desgaitasunagatik edo gaixotasun mentalagatik	10
Terrorismoaren biktima	10
Genero-indarkeria	10
Mendekotasunaren arabera (1-3 graduak)	10

- **Dokumentazioa:**

- Adimen-desgaitasunaren eta garapen edo gaixotasun mentalaren kasuan: desgaitasunaren edo gaixotasun mentalaren diagnostikoa jasotzen duen Foru Aldundiaren elbarritasun-ziurtagiria.
- Terrorismoaren biktimen kasuan: Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunaren txostena.
- Genero-indarkeriaren kasuan: genero-indarkeriako gertakariak egiaztatzen dituen epai judiziala, babes-agindua edo gizarte-zerbitzuen txostena, betiere dokumentu horiek bi urte baino gutxiago badituzte.
- Bizikidetz-unitatean mendetasuna duen pertsona 1etik 3ra bitartekoa bada: Foru Aldundiaren ziurtagiria, gradua adierazten duena. n el caso de discapacidad intelectual y del desarrollo o enfermedad mental: certificado de minusvalía emitido por la Diputación Foral que recoja el diagnóstico de la discapacidad o enfermedad mental.